

# GAZTEPING

Gu Amaiur, Nahia, Eider eta Ainara gara, proiektu honen egileak. Gazteentzat egokituta dagoen kanpin bat egitea erabaki dugu, "**Gazteping**" izenekoa. Gure kanpina Deban kokatuko genuke, hondartzatik gertu dagoen eremu batean, hain zuzen ere. Deba herri egokia iruditzen zaigu, batez ere, nahiz eta Gipuzkoako herri bat izan, Bizkaitik gertu dagoelako. Horrela, bai Gipuzkoako eta bai Bizkaiko gazteek izango dute gertu. Bestalde, Debako inguru menditsuan nahikoa terreno dagoela iruditzen zaigu, egokia den bat aukeratu eta bertan kanpaleku bat jarri ahal izateko.

Hasieran aipatu bezala, gazteei zuzendutako kanpin bat egitea erabaki dugu. Izan ere, urtean zehar gazteek beraiantzako gune eta aisialdi lekurik ez dutenez, udaran hori eskuargarri izateko aukera eman nahi diegu: jende gehiago ezagutu ahal izateko, gurasorik gabe gozatzeko, deskonektatzeko, ondo pasatzeko...

